e) Euskal Autonomia Erkidegoan sortzen diren hondakin arriskutsuak kudeatzeko behar adina azpiegitura edukitzea sustatzea, eta, hurbiltasun-printzipioaren arabera, behar adina azpiegitura dagoenean zona geografiko batetik bestera poluzioa eramatea saihestea.

f) Aurreko azpiatalean ezarritako buruaskitasunaren eta hurbiltasunaren printzipioen esparru orokorraren barruan, hondakin arriskutsuen korrante desberdinentzat irtenbide malguak eta era askotakoak sustatzea.

g) Balioztatze azpiegiturak daudenean hondakin arriskutsuak botatzea saihestea.

76. atala.– Ingurugiro-organoaren eskumenak.

b) La coordinación, en el ámbito de cada territorio histórico, de las actuaciones municipales en orden a garantizar la prestación integral de servicios en esta materia.

c) El impulso de infraestructuras supramunicipales de gestión de residuos.

SECCIÓN 3.ª

RESIDUOS PELIGROSOS Y OTRAS TIPOLOGÍAS DE RESIDUOS

Artículo 75.– Residuos peligrosos y otras tipologías de residuos. Acciones.

Con el fin de dar cumplimiento a los principios enumerados en el artículo 69 en materia de residuos peligrosos y otras tipologías de residuos, las Administraciones públicas competentes desarrollarán acciones dirigidas a:

a) Impulsar la introducción de tecnologías limpias que permitan un uso más eficiente de los recursos naturales, minimizando la cantidad y peligrosidad de los residuos generados.

b) Apoyar el desarrollo técnico y la comercialización de productos que, por sus características de fabricación, utilización y eliminación, reduzcan la cantidad y peligrosidad de los residuos generados y los riesgos de contaminación.

c) Promover la sustitución progresiva de materias primas y productos auxiliares que contemplen elementos peligrosos o generen importantes cantidades de residuos de tal carácter, por otros de menor impacto.

d) Potenciar una gestión tecnológicamente avanzada de los residuos que conlleve costes crecientes en la eliminación o vertido de los mismos, con el fin de incentivar a los productores a orientar sus esfuerzos hacia una política de minimización, aplicando medidas de prevención y de reciclaje-recuperación.

e) Promover la suficiencia de las infraestructuras de gestión para los residuos peligrosos que se generen en la Comunidad Autónoma del País Vasco y evitar, acorde con el principio de proximidad, el traslado de contaminación de unas a otras áreas geográficas cuando exista esta suficiencia.

f) Fomentar la multiplicidad y flexibilidad de soluciones para las distintas corrientes de residuos peligrosos, dentro del marco general de los principios de autosuficiencia y proximidad establecidos en el apartado anterior.

g) Evitar el vertido de los residuos peligrosos que dispongan de infraestructuras de valorización.

Artículo 76.– Competencias del órgano ambiental.

1.- Hondakin arriskutsu eta gainerako hondakin-motetan, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoari dagokio hondakinen produkzio eta kudeaketako jardueren baimena ematea, ikuskatzea eta zigorrak ezartzea, indarrean dagoen legeriaren arabera toki-erakundeei dagozkien eskumenen kalterik gabe.

2.- Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoari dagozkio:

a) Ingurugiro-babeseko estandar handiak bertutuko dituzten hondakin-kudeaketako azpiegiturak kokatzeko, ezartzeko eta ustiatzeko baldintzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko esparruko irizpide-batasuna definitzea.

b) Hondakin-kudeaketan sortzen ari diren sistematik ingurugiroaren ikuspegitik ontzat ematea.

77. atala.- Planak.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoari dagokio hondakin arriskutsuentzat eta beste zenbait hondakin-motarentzat plan arteztaileak egitea, eta plan horietako jarraibideak bete beharko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan garatzen diren produkzio eta kudeaketa publiko zein pribatuko jarduerak.

78. atala.- Kudeaketa-zerbitzuak.

1.- Hondakin arriskutsuen eta beste zenbait hondakin-motaren kudeaketaren arloan Administrazioaren ekintzak kudeaketa pribatuarekiko ordezkotasun-printzipiora moldatuko dira. Hondakin desberdinak dagokion zerbitzu publikoa sortuta kudeatu ahal izango dira.

2.- Ingurugiroa babesteko objektiboki funtsezkoa denean, kudeaketa-zerbitzu publikoa monopolioerregimenean eratu ahal izango da, horretarako dagokion tasa eratuko delarik.

79. atala.- Ingurugiro-zergak.

1.- Hondakin arriskutsuak minimizatu eta balioztatzeke, ingurugiro-zergen berariazko erregimena ezarri ahal izango da, lege honen 87. atalean ezarritakoaren arabera.

2.- Aurreko azpiatalean aurreikusitako ingurugiro-zergek honako hauei eragin diezaiekete: hondakinen bizi-zikloan parte hartzen duen edo bitartekari den beste edozein agenteri eta erabiltzean hondakin arriskutsuak sor ditzaketen produktuen fabrikatzaileei, eskuratzaileei eta inportatzaileei.

1.- En materia de residuos peligrosos y restantes tipologías de residuos, corresponderá al órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco la autorización, inspección y sanción de las actividades de producción y gestión de residuos, sin perjuicio de las competencias que puedan corresponder a los entes locales en virtud de la normativa en vigor.

2.- Asimismo corresponderá al órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco:

a) la definición de los requisitos técnicos de ubicación, implantación y explotación de infraestructuras de gestión de residuos que garanticen altos estándares de protección medioambiental y la uniformidad de criterios dentro del ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) la validación desde una óptica medioambiental de los sistemas emergentes de gestión de residuos.

Artículo 77.- Planes.

Corresponderá al órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco la elaboración de planes directores de residuos peligrosos y otras tipologías de residuos, a cuyas directrices deberán someterse las actividades de producción y gestión públicas o privadas que se desarrollen en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 78.- Servicios de gestión.

1.- Las actuaciones de las Administraciones en el ámbito de la gestión de residuos peligrosos y otras tipologías de residuos se acomodarán al principio de subsidiariedad respecto de la gestión privada. La gestión de determinados residuos podrá realizarse mediante la constitución del servicio público correspondiente.

2.- El servicio público de gestión, cuando resulte objetivamente esencial para los fines de la protección ambiental, podrá constituirse en régimen de monopolio, creándose a tal efecto la correspondiente tasa.

Artículo 79.- Tributos medioambientales.

1.- En orden a la minimización y valorización de los residuos peligrosos se podrá establecer un régimen específico de tributos medioambientales de acuerdo con lo establecido en el artículo 87 de la presente ley.

2.- Los tributos medioambientales contemplados en el apartado anterior podrán repercutirse a los productores y gestores de residuos peligrosos, a cualquier otro agente interviniente o intermediario en el ciclo de vida de los residuos y a los fabricantes, adquirentes o importadores de productos de cuyo uso pudieran derivarse residuos peligrosos.

V. ATALBURUA
POLUITUTAKO LURZORUAK

80. atala.– Poluitutako lurzoruak.

1.– Poluitutako lurzoruak honako hauek dira: ezugarri kimikoetan bere eginkizunarekin bateraezina den aldaketaren bat izan (osasun publikoarentzat edo ingurugiroarentzat arriskutsuak direlarik) eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoak horrela deklaratu dituenak.

2.– Lurzorua poluitutzat jotzea bazterrean jasokoda, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoaren ekimenez, ohar gisa Jabetza Erregistroan, eta ohar hori ezabatu egingo da ingurugiro-organoak lurzorua dagoeneko poluitutzat jotzen ez dela aditzera ematen duenean.

81. atala.– Betebeharrak.

1.– Lurzorua poluitutzat jotzeak berreskuratzeko neurriak ingurugiro-organoak erabaki dezan eran hartu beharra ekarriko du berekin. Betebehar hori poluitzaileei egokituko zaie, eta elkertasunez erantzungo dute bat baino gehiago direnean, eta subsidiarioki, poluitutako lurraren jabeek dagokienez.

2.– Nolanahi ere, poluitutako lurzoruak berreskuratzeko neurriak finantzaketa publikoaren bidez hartuko balira, laguntzak jasotzeko modu bakarra hau izango da: aldez aurretik hitzematea lurzoruak berezten dituzten gainbalioak aipatu laguntzak finantzatu dituen Administrazio publikoari itzuliko zaizkio-laguntza jasotako laguntzen araberrako zenbatekoz.

82. atala.– Egiune bidez ordaintzea.

Poluitutzat jotako lurzoruak berreskuratzeko jardueren ekiteko, jarduera horien egitera behartutako eta administrazio publiko eskudunen artean sinatutako borondatezko akordioez baliatzeko aukera izango da.

83. atala.– Poluitutako lurzoru-politikaren oinarriak.

Poluitutako lurzoruarentzat Autonomia Erkidegoko politikak oinarri hauek ditu:

- a) Lurzoruaren zeregin naturalak kontserbatzea.
- b) Ahalik eta zeregin gehienak mantentzea.
- c) Lurzorua gero izango duen erabilpenaren araberr berreskuratzera.
- d) Poluitutako lurzoruak lurzoru egoki berreskuratzeko ekintzaren kostuak bereganatuko dituzten erabilpenen esleipena.

CAPÍTULO V
SUELOS CONTAMINADOS

Artículo 80.– Suelos contaminados.

1.– Son suelos contaminados aquellos que presenten una alteración de sus características químicas incompatible con sus funciones, debido a que supongan un riesgo inaceptable para la salud pública o el medio ambiente, y así sean declarados por el órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– La declaración de un suelo como contaminado será objeto de nota marginal en el Registro de la Propiedad a iniciativa del órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Dicha nota marginal se cancelará cuando el órgano ambiental declare que el suelo ha dejado de tener tal consideración.

Artículo 81.– Obligaciones.

1.– La declaración de un suelo como contaminado conllevará la obligación de adoptar medidas de recuperación en la forma que determine el órgano ambiental. Tal obligación corresponderá a los causantes de la contaminación, que cuando sean varios responderán de forma solidaria, y subsidiariamente a los propietarios del suelo contaminado.

2.– En todo caso, si la adopción de las medidas de recuperación de suelos contaminados fuera realizada con financiación pública, sólo se podrán recibir ayudas previo compromiso de que las posibles plusvalías que adquieran los suelos revertirán en la cuantía subvencionada en favor de la Administración pública que haya financiado las citadas ayudas.

Artículo 82.– Reparación en vía convencional.

Las actuaciones para proceder a la recuperación de los suelos declarados como contaminados podrán llevarse a cabo mediante acuerdos voluntarios suscritos entre los obligados a realizar dichas actuaciones y las Administraciones públicas competentes.

Artículo 83.– Principios de la política de suelos contaminados.

La política de la Comunidad Autónoma en materia de suelos contaminados se inspirará en los siguientes principios:

- a) La conservación de las funciones naturales del suelo.
- b) El mantenimiento del máximo de sus funciones.
- c) La recuperación del suelo, acorde con el uso a que vaya a ser destinado.
- d) La asignación de usos que permitan absorber los costes de una acción recuperadora adecuada del suelo.

e) Poluitutako lurzoruari erabilpen bat esleitzen zaionean, hirigintza-kudeaketaren esparruan dagoen lurzoru osoarentzat ingurugiro-soluzioa exigitzea.

f) Lurzoruaren babes juridikoa, ondasuna definitzeko elementu diren eta jabego-eskubideko eduki arruntaren parte diren ezaugarri kimiko, biologiko edo fisikoak kontuan hartuta egituratuko baita.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruaren kalitatearen kalterako aldaketa ezagutu eta kontrolatzeari lehentasuna ematea.

84. atala.– Eskumenak.

1.– Lehen aipatutako oinarriak betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoari dagozkio:

a) Lurzoruaren poluitzaile izan daitezkeen jardueren eta instalazioen zerrenda egitea.

b) Poluitutako lurzoruaren prebentzio, defentsa eta berreskurapeneko neurriak definitzea eta inposatzea eta saneatzeko eta berreskuratzeko planak onartzea, haiek bereziki korapilatsuak edo larriak gertatzen direnean.

c) Bere erabilpen desberdinen arabera, lurzoruaren osagai desberdinen balio maximo onargarriak ezartzea.

d) Lurzoruko aldaketak ebaluatu eta kontrolatzeko mailakako sistema, bai eta ebaluaziobalioen sistema ere, ezartzea.

e) Administrazioak parte hartzea presazkoa edo premiazkoa dela frogatzen duen espedientea aurrez eginda, kontrolerako mekanismoak eta babesteko edo berreskuratzeko neurriak ezarri behar direnean onura publikoaren deklaraziorako proposamena egitea.

f) Gai honetan jarduera administratiboari dagozkionez, segurtasun juridikoa, informazio-eskubidea eta fede publikoa bermatuko dituzten inbentarioak eta erregistro administratiboak sortzea.

2.– Udalei dagokie:

a) Hirigintzako planetan 81. atalean adierazitako oinarriak jasotzea.

b) Oinarri horiek hirigintzako kudeaketan sartzea.

c) Hirigintzaren arloan oinarri horiek aplikatzea.

e) La exigencia de solución ambiental para la totalidad del suelo comprendido en el ámbito de gestión urbanística cuando se asigne un uso a un suelo contaminado.

f) La protección jurídica del suelo, que se estructurará teniendo en consideración las características químicas, biológicas o físicas que son elementos definitorios del bien y forman parte del contenido normal del derecho de propiedad.

g) La prioridad del conocimiento y control de la alteración de la calidad de los suelos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 84.– Competencias.

1.– Para el cumplimiento de los principios anteriormente descritos, corresponde al órgano ambiental de la Comunidad Autónoma:

a) La elaboración de una lista de actividades e instalaciones potencialmente contaminantes del suelo.

b) La definición e imposición de las medidas de prevención, defensa y recuperación de suelos contaminados y la aprobación de planes de saneamiento y recuperación cuando aquéllas resulten de especial complejidad o gravedad.

c) El establecimiento de los valores máximos tolerables de los distintos componentes del suelo, en relación con los distintos usos del mismo.

d) El establecimiento de un sistema progresivo de evaluación y control de las alteraciones del suelo y de un sistema de valores de evaluación.

e) La propuesta de declaración de utilidad pública en aquellos supuestos de imposición de mecanismos de control y de medidas de protección o recuperación, previo expediente en que se acredite la urgencia o necesidad de la intervención administrativa.

f) La creación de inventarios y registros administrativos que garanticen la seguridad jurídica, el derecho a la información y la fe pública en relación con la actuación administrativa en la materia.

2.– Corresponde a los Ayuntamientos:

a) La recepción en el planeamiento urbanístico de los principios recogidos en el artículo 83.

b) La incorporación de dichos principios en la gestión urbanística.

c) La aplicación de estos principios desde la disciplina urbanística.

IV. IDAZPURUA
INGURUGIRO POLITIKARAKO BALIABIDEAK

I. ATALBURUA
BALIABIDE PUBLIKOAK

1. SAILA
ANTOLAMENDURAKO BALIABIDE PUBLIKOAK

85. atala.– Planak eta programak.

Ingurugiro-politika gauzatzeko baliabide gisa, EAeko administrazio publikoek helburuak, epeak eta jarduera publiko zein pribatuak finkatzeko planak edota programak prestatuko dituzte, arduradun diren organoak eta aurreikuspen ekonomiko-finantzarioak adieraziko direlarik.

86. atala.– Lurralde-antolamendurako baliabideak.

Lurralde-antolamendurako eta arloantolamendurako planek eta gainerako baliabideek ondoko ingurugiro-eskakizunak errespetatu behar dituzte:

- a) Ingurugiro-baliabideen kontserbazioa bermatzea.
- b) Lurralde-antolamenduan kalifikazio egokiak eta babes-arauak sartzea.
- c) Kaltetuta dauden area eta prozesu ekologikoak hobetu, berreskuratu eta birgaitzea.

87. atala.– Ingurugiroari buruzko udal-ordenantzak.

Toki-erakundeek, ingurugiroaren arloan dituzten eskumenak erabiliz, ingurugirorako udal-ordenantzak onartu egin beharko dituzte.

2. SAILA
HITZARMEN-BALIABIDEAK

88. atala.– Ingurugiro-hitzarmenak.

1.– Ingurugiro-baliabideak kudeatzea edo zaintzea bere gain duten administrazio publikoek erantzukizun-mugen zenbatekoak hitzartu ahal izango dituzte baliabide horiek erabiltzeko eskubidea duten titularrekin edo baliabide horientzat arriskutsu izan daitezkeen jarduerak dituztenekin.

2.– Era berean, osagarri gisa babes, prebentzio eta berreskuratzeko jarduerak hitzartu ahal izango dira. Horiek arduradun diren subjektuek finantzatuko dituzte eta erantzukizun-muga objektibagarrietan murrizketa garrantzitsua eragin dezakeenak izango dira. Jarduera horiek, ahal den neurrian, hezkuntza, informazio eta ikerketarako ekintzak izango dituzte.

TÍTULO IV
INSTRUMENTOS DE POLÍTICA AMBIENTAL

CAPÍTULO I
INSTRUMENTOS PÚBLICOS

SECCIÓN 1.ª
INSTRUMENTOS PÚBLICOS DE ORDENACIÓN

Artículo 85.– Planes y programas.

Como instrumentos de ejecución de la política ambiental, las distintas Administraciones públicas vascas elaborarán los planes y/o programas que fijarán objetivos, plazos y actuaciones públicas y privadas, con indicación de los órganos responsables y las previsiones económico-financieras.

Artículo 86.– Instrumentos de ordenación territorial.

Los planes y demás instrumentos de ordenación territorial y sectorial deberán respetar las siguientes exigencias ambientales:

- a) Garantizar la conservación de los recursos ambientales.
- b) Integrar en la ordenación territorial las adecuadas calificaciones, así como las normas de protección.
- c) Mejorar, recuperar y rehabilitar las áreas y procesos ecológicos que se encuentren degradados.

Artículo 87.– Ordenanzas municipales de medio ambiente.

Los entes locales, en el ejercicio de sus atribuciones en materia ambiental, deberán aprobar las correspondientes ordenanzas municipales de medio ambiente.

SECCIÓN 2.ª
INSTRUMENTOS DE CONCERTACIÓN

Artículo 88.– Conciertos ambientales.

1.– Las Administraciones públicas que tengan encomendadas la gestión de recursos ambientales o la tutela de los mismos podrán concertar la cuantificación de los límites de responsabilidad con los titulares de derecho de uso de los citados recursos o con quienes realicen actividades que entrañen riesgos para los citados recursos.

2.– Asimismo, se podrán concertar de forma complementaria acciones de protección, prevención y restauración que, financiadas a cargo de los sujetos responsables, puedan suponer una reducción importante de los límites objetivables de responsabilidad. Estas acciones deberán incorporar, en la medida de lo posible, acciones formativas, informativas y de investigación.

3. SAILA

BALIABIDE EKONOMIKO-FINANTZARIOAK ETA
ZERGABALIABIDEAK

89. atala.– Berariazko fondoak eta ingurugiro-zergak.

1.– Administrazio publikoek berariazko fondoak sortu ahal izango dituzte ingurugiroa babesteko jarduerak finantzatzeko, indarrean dagoen aurrekontu-legeriara moldatu behar diren kalterik gabe.

2.– Era berean, lege honen esparruan finkatutako printzipio eta ekintzak benetan ezartzeko, ingurugiro-zergen berariazko erregimenak ezarri ahal izango dira, eta zerga horien bidez bildutako dirua aurreko azpiatalean aurreikusitako fondoak finantzatzeko erabili ahal izango da.

90. atala.– Ingurugiroari buruzko betebeharren bermeak.

Administrazio publikoek, ingurugiro-betebeharrak bete egiten direla bermatzeko eta bere berariazko eskumenen esparruan, horretarako behar adinako kopurua duten fidantza eta beste zenbait berme exigitu ahal izango dituzte.

91. atala.– Pizgarri fiskalak.

Administrazio publikoek aldika ebaluatuko dute arlo ekonomiko edo arlo fiskalean indarrean dauden ingurugiro-baliabideen eraginkortasuna, ingurugiroa hobetzeko dauden politika fiskal sustagarriak bultzatuko dituzte eta, dagokionean, beste pizgarri batzuk aplikatzea edo daudenak aldatzea proposatuko dute.

92. atala.– Tasak eta prezio publikoak.

1.– Administrazio publikoek ingurugiro-zerbitzu publikoak, tasak eta prezio publikoak aplikatuta, zerbitzuen onuradun edo erabiltzaileei ordainarazterik izango dute, tasa eta prezio horiek aplikatu daitezkeen zerga-erregimenaren arabera ezarriko direlarik.

2.– Administrazio publikoek ingurugiroari kaltea eragiten dion erabilpen pribatiboagatik edo jabari publikoaren aprobetxamendu bereziagatik tasak ezarri ahal izango dituzte. Baita ere, ingurugiroari dagozkion zerbitzuak edo jarduerak egiteagatik edo jarduerak burutzeagatik, hauek administratuek derrigor eskatu edo hartzeak ez direnean eta arlo pribatuarekin lehia eskaintzen direnean.

3.– Era berean, administrazio publikoek ingurugiro-jarduerak burutzeagatik edo zerbitzuak egiteagatik prezio publikoak ezarri ahal izango dituzte, zerbitzu edo jarduera horiek administratuek derrigor eskatu edo hartzeak ez direnean eta arlo pribatuarekin lehia eskaintzen direnean.

93. atala.– Arriskuak aseguratzea.

1.– Beren jardueragatik ingurugiroarentzat arriskuak sortzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek,

SECCIÓN 3.ª

INSTRUMENTOS ECONÓMICO-FINANCIEROS Y
TRIBUTARIOS

Artículo 89.– Fondos específicos y tributos medioambientales.

1.– Las Administraciones públicas podrán crear fondos específicos destinados a financiar actuaciones de protección del medio ambiente, sin perjuicio de la adecuación a la legislación presupuestaria en vigor.

2.– Asimismo, para la efectiva implantación de los principios y acciones establecidos en el marco de la presente ley, se podrán establecer regímenes específicos de tributos medioambientales cuya recaudación podrá destinarse a la financiación de los fondos previstos en el apartado anterior.

Artículo 90.– Garantías de obligaciones ambientales.

Las Administraciones públicas podrán exigir, para garantizar el cumplimiento de las obligaciones ambientales y en el marco de sus competencias específicas, la constitución de fianzas u otras garantías en cantidad suficiente a tal fin.

Artículo 91.– Incentivos fiscales.

Las Administraciones públicas evaluarán con carácter periódico la eficacia de los instrumentos medioambientales de índole económica y/o fiscal en vigor, impulsarán y potenciarán las políticas fiscales incentivadoras de la mejora medioambiental ya existentes, y propondrán, en su caso, la aplicación de nuevos incentivos o modificaciones en los ya establecidos.

Artículo 92.– Tasas y precios públicos.

1.– Las Administraciones públicas podrán repercutir los costes de servicios públicos ambientales mediante la aplicación de tasas o precios públicos a los beneficiarios o usuarios de los mismos, cuyo establecimiento atenderá al régimen tributario aplicable.

2.– Las Administraciones públicas podrán fijar tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público que ocasionen deterioro al medio ambiente, así como por la prestación de servicios o realización de actividades medioambientales cuando éstos sean de solicitud o recepción obligatoria por los administrados y no exista concurrencia del sector privado en su prestación.

3.– Asimismo, las Administraciones públicas podrán fijar precios públicos por la prestación de servicios o realización de actividades medioambientales cuando estos no sean de solicitud o recepción obligatoria por los administrados y sean prestados en concurrencia con el sector privado.

Artículo 93.– Aseguramiento de riesgos.

1.– Las personas físicas o jurídicas de cuya actividad se deriven riesgos ambientales podrán dotarse de

beren oraingo eta geroko betebeharrei egoki erantzun ahal izateko, hainbat aseguru egin ahal izango dituzte.

2.- Aurreko azpiatalean adierazitakoaren arabera, pertsona fisiko eta juridikoek honako baliabide hauek eduki ahal izango dituzte:

a) Behar bezala bermatuko diren autoaseguru-sistemak.

b) Aseguruen merkatuan kontrataturiko berariazko aseguruak, bai erantzukizun zibilarri dagokionez eta bai bere ondasun eta instalazioei dagokienez.

4. SAILA

INBENTARIOAK ETA DATU-BASEAK

94. atala.– Inbentarioak.

1.– Administrazio publikoek ingurugiro-baliabideen inbentario publikoak prestatuko dituzte. Inbentario irekiak izango dira.

2.– Araudi bidez finkatuko da inbentarioak, beti eguneratuta edukitzearren, berrikusteko eta aldatzeko prozedura.

95. atala.– Ingurugiroari buruzko datu-baseak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organismoak koordinatuko du ingurugiroari buruzko datu-basea sortzea eta kudeatzea. Datu-baseak, Autonomia Erkidegoko ingurugiro-baliabideez informazioa emango duten dokumentu eta kartografiak osatu ahal izango da.

2.– Estatuan eta nazioartean horretarako dauden datu-baseekin elkarlana eta informazio-trukea bideratuko da.

II. ATALBURUA

INGURUGIROA ZAINDU ETA KUDEATZEKO BALIABIDEAK

1. SAILA

INGURUGIRO-AUDITORETZAK

96. atala.– Ingurugiro-auditoretza.

1.– Administrazio publikoek jarduera ekonomikoak dituzten enpresen ingurugiro-kudeaketaren ebaluazio-sistema gisa ingurugiro-ikuskapenak edo ekoikuskapenak egitea bultzatuko dute eta horien berri jendeari ematea ere bai.

2.– Lege honen arabera, hauxe da ingurugiro-ikuskapena: jarduera ekonomikoen eta ingurugiro-eskakizunak betetzearen ingurugiro-kudeaketarako sistema borondatez, sistematikoki, objektiboki eta aldizka egiten den ebaluazio-prozesua.

instrumentos asegurativos diversos con el fin de poder responder adecuadamente a sus obligaciones presentes y futuras.

2.– A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, las personas físicas o jurídicas podrán dotarse de los siguientes instrumentos:

a) Sistemas de autoseguro que deberán ser garantizados adecuadamente.

b) Seguros específicos contratados en el mercado asegurador, tanto en materia de responsabilidad civil como respecto de sus propios bienes e instalaciones.

SECCIÓN 4.ª

INVENTARIOS Y BASES DE DATOS

Artículo 94.– Inventarios.

1.– Las Administraciones públicas elaborarán inventarios públicos de los recursos ambientales, los cuales tendrán carácter abierto.

2.– Reglamentariamente se determinará el procedimiento de revisión y modificación de los inventarios, a fin de mantenerlos permanentemente actualizados.

Artículo 95.– Bases de datos ambientales.

1.– El órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco coordinará la creación y gestión de una base de datos ambientales, tanto documentales como cartográficos, que faciliten la información sobre los recursos ambientales de la Comunidad Autónoma.

2.– Se instrumentará la cooperación e intercambio de información con las bases de datos y redes estatales e internacionales establecidas al efecto.

CAPÍTULO II

INSTRUMENTOS DE TUTELA Y GESTIÓN AMBIENTAL

SECCIÓN 1.ª

AUDITORÍAS AMBIENTALES

Artículo 96.– Auditoría ambiental.

1.– Las Administraciones públicas fomentarán la realización de auditorías ambientales o ecoauditorías, como sistema de evaluación de la gestión ambiental de empresas que desarrollen actividades económicas, así como su correspondiente información al público.

2.– A efectos de la presente ley, se entiende por auditoría ambiental el proceso de evaluación voluntaria, sistemática, objetiva y periódica, del sistema de gestión ambiental de las actividades económicas, así como del cumplimiento de requerimientos ambientales.

3.- Ingurugiro-ikuskapenak, poluitzaile-igorpenari, hondakin-produkzioari, lehengai, energia eta uraren kontsumoari eta indarrean dagoen ingurugiro-legeriaren betetze-mailari dagokien jarduera ekonomikoaren diagnostikoa lortzeko izango dira. Ikuskatutako jarduerak eskatzen den ingurugiro-kudeaketa segurtatzeko duen ahalmena ere ebaluatuko da.

4.- Ikuskapeneko emaitzak jendearen esku utziko dira ingurugiro-deklarazioaren bidez. Honek labur eta ulertzeko eran enpresaren kudeaketako ingurugiro-egoera adierazi beharko du, aplikatzekoak diren Europako Batasuneko arauak xedatutakoaren arabera.

2. SAILA EKOETIKETA

97. atala.- Ekoetiketa.

1.- Ekoetiketa ingurugiro-ezaugarria da, eta honako adierazten du: Europako Batasunaren 1992ko martxoaren 23ko 880/92 Araudiaren arabera, hori daraman produktuak ingurugiroa errespetatu egiten duela eta produktuaren bizi-ziklo osorako ingurugiro-kostuak behar bezala bere gain hartuak dituela.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Jaurlaritzak izendatu ahal izango du etiketa emateko eskudun erakundea, Europako Batasuneko arauak garatuz.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organok ekoetiketa-sistemen helburu eta ezaugarrien informazioa kontsumitzaileengana eta enpresetara zabaltzea bultzatuko du.

4.- Behar diren neurriak hartuko dira genetikaz manipulaturako edo manipulazio genetikoz lortutako produktu guztiek beren etiketa edo identifikazioan zehaztasun hori agertaraz dezaten.

3. SAILA INGURUGIROARI BURUZKO HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

98. atala.- Ingurugiro-hezkuntza.

Administrazio publikoek gizarteko arlo guztietan ingurugiro-hezkuntza sustatuko dute. Horretarako, herritarrengana eta erakundeetara oro har ingurugiro-arazoak prebenitzeko eta benetan konpontzeko ezagutza, informazio, jarrera, balore, portaera eta trebetasun praktikokoak zabaldu eta helaraziko ditu.

99. atala.- Ingurugiro-dibulgazioa.

Ingurugiro-kudeaketako programek betiere heziketa eta dibulgaziorako osagai bat edukiko dute, he-

3.- Las auditorías ambientales irán dirigidas a la obtención de un diagnóstico de la actividad económica en lo que se refiere a emisión de contaminantes, producción de residuos, consumo de materias primas, energía y agua, y análisis del grado de cumplimiento de la legislación ambiental vigente, así como de la capacidad de la actividad auditada para asegurar la gestión ambiental requerida.

4.- La información al público de los resultados de la auditoría se realizará a través de la declaración ambiental, que habrá de expresar, de forma resumida y comprensible, la situación ambiental de la gestión de la empresa, conforme lo dispone la reglamentación comunitaria de aplicación.

SECCIÓN 2.ª ECOETIQUETA

Artículo 97.- Ecoetiqueta.

1.- La ecoetiqueta es un distintivo ambiental que acredita, de conformidad con el Reglamento 880/92/CEE, de 23 de marzo de 1992, que el producto que la ostenta es respetuoso con el medio ambiente y tiene debidamente internalizados los costes medioambientales, respecto de todo el ciclo de vida del producto.

2.- El Gobierno de la Comunidad Autónoma del País Vasco podrá designar el organismo competente para la concesión de la ecoetiqueta, en desarrollo de la normativa comunitaria.

3.- El órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco promoverá la difusión de información a los consumidores y consumidoras y empresas sobre los objetivos y características de los sistemas de ecoetiquetado.

4.- Se tomarán las medidas necesarias para que todo producto manipulado genéticamente u obtenido a partir de manipulación genética haga constar esta circunstancia en su etiquetado e identificación.

SECCIÓN 3.ª EDUCACIÓN Y FORMACIÓN AMBIENTAL

Artículo 98.- Educación ambiental.

Las Administraciones públicas impulsarán la educación ambiental en todos los sectores sociales, mediante actuaciones que difundan y extiendan en la ciudadanía y en el conjunto de instituciones conocimientos, información, actitudes, valores, comportamientos y habilidades prácticas encaminadas a la prevención y resolución efectiva de los problemas ambientales.

Artículo 99.- Divulgación ambiental.

Los programas de gestión ambiental tendrán, en todo caso, un componente de educación y divulga-

rritarrek horiek ezagutzea eta gizarteko talde desberdinen parte-hartzea bultzatuko delarik. Era berean, ingurugiroa babesteko arloan asoziazionismoa sendotzea bultzatuko da.

100. atala.– Ingurugiro-hezkuntzarako planak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ingurugiro-hezkuntza, -ikerketa eta -sentikortasunerako jarduera-plana elkarlanean martxan jarriko dute.

2.– Planaren helburuak hauek izango dira:

- a) Ingurugiro-kontzientzia zabaltzea.
- b) Unibertsitatekoak ez diren irakaskuntza-mailetan ingurugiro-heziketa egokia izatea.
- c) Unibertsitatearen esparruan ingurugiro-ezagutzako arlo desberdinetan trebakuntza espezializatua eskaintzea.
- d) Ingurugiro-ikerketa teknologian, osasun-zientzietan, zientzia esperimentaletan, gizarte-zientzietan eta humanitateetan sustatzea.

V. IDAZPURUA
INGURUGIRO DIZIPLINA

1. ATALBURUA
PRINTZIPIO OROKORRAK

101. atala.– Erantzukizuna.

1.– Lege honen aginduak betetzen ez dituzten ekintza edo ez-egiteek izaera administratiboko erantzukizuna sortuko dute, bide penaletik edo zibiletik eska daitekeenaren kalterik gabe.

2.– Arau-hauste administratiboaren heineko ekintzengatik, ekintza horien erantzukizuna duten pertsona fisiko zein juridikoak soilik zigortu ahal izango dira. Arau-haustea pertsona bati baino gehiagori batera ezarritako betebeharrak ez betetzetik heldu denean, haiek guztiek era solidarioan erantzungo dute.

102. atala.– Aldatutako ingurunea leheneratzea.

1.– Ezartzen diren zigorren kalterik gabe, arau hausten dutenak behartuta daude eragindako kalteak ordaintzera, aldatutako ondasunak konpondu eta lehengo egoerara ekartzearren.

2.– Araua hausten duenak aurreko azpiatalean ezarritako betebeharra betetzen ez duenean edo erabat betetzen ez duenean, behartzeko isunak ipini ahal izango dira.

3.– Aurreko azpiatalean aipatutako isunak ezarri baino lehen, arau hausten duena errekeritu egingo da agindutakoa borondatez bete dezan; horretarako

ción, favoreciendo el conocimiento de los mismos por parte de la ciudadanía y la participación de los diferentes sectores sociales, fomentando, asimismo, la consolidación del asociacionismo en el área de la protección del medio ambiente.

Artículo 100.– Planes de educación ambiental.

1.– El órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco pondrán en funcionamiento un plan de actuación conjunta en materia de educación, investigación y sensibilización ambiental.

2.– El plan tendrá como finalidades:

- a) La generalización de la conciencia ambiental.
- b) La correcta educación ambiental en las enseñanzas no universitarias.
- c) Ofrecer, en el ámbito universitario, capacitación especializada en los distintos sectores del conocimiento ambiental.
- d) El fomento de la investigación ambiental en los campos de la tecnología, ciencias de la salud, ciencias experimentales, ciencias sociales y humanidades.

TÍTULO V
DISCIPLINA AMBIENTAL

CAPÍTULO I
PRINCIPIOS GENERALES

Artículo 101.– Responsabilidad.

1.– Las acciones u omisiones que supongan un incumplimiento de los preceptos de la presente ley, generarán una responsabilidad de carácter administrativo, sin perjuicio de la exigible en vía penal o civil en que se pueda haber incurrido.

2.– Sólo podrán ser sancionadas por hechos constitutivos de infracción administrativa las personas físicas o jurídicas que resulten responsables de los mismos. Cuando la infracción consista en el incumplimiento de obligaciones impuestas a varias personas conjuntamente responderán todas ellas de forma solidaria.

Artículo 102.– Restitución del medio alterado.

1.– Sin perjuicio de las sanciones que se impongan, los infractores o infractoras estarán obligados a reparar los daños causados, con objeto de restaurar y reponer los bienes alterados a su estado anterior.

2.– Cuando el infractor o infractora no cumpla la obligación impuesta en el apartado anterior o lo haga de una forma incompleta, podrán serle impuestas multas coercitivas a tal fin.

3.– Con anterioridad a la imposición de las multas contempladas en el apartado anterior, se requerirá al infractor para la ejecución voluntaria de lo ordenado,

epea egoera aztertuta finkatuko da, baina borondatez betetzeko behar adinakoa izango da.

4.- Behartzeko isunak egin den arau-hausteagatik zigor gisa ipini zaizkion edo ipin dakizkiokeen isuneko independenteak eta bateragarriak izango dira.

5.- Kaltea elementu berean edo leku geografiko berean konpondu ezin denean, eskudun organoak baliokidea den konponketa agindu dezake.

6.- Administrazioak ezarritako zigorretatik lortzen diren fondo ekonomikoak erabat ingurugiroa hobetzeko erabili behar dira.

103. atala.- Premiamendu-bidea.

Premiamendu-bidez eskatu ahal izango dira ezarritako diru-zigorren zenbatekoa, behartzeko isunena eta lege honetan adierazitako arau-hausteengatik kalte diren ondasunak berritzeko egiten diren jarduerak ordezkatzaileek eragindako gastuena.

104. atala.- Ordezko burutzapena.

1.- Horretarako zigortzeko organoak errekerituta arau-hausleak ingurugiroa konpontzeko betebeharrak beteko ez balitu, organo horrek ordezkatze-izaezaz exekutatzea aginduko du.

2.- Aurrez errekeritu beharrik ez da izango eta exekuzioa berehala burutu daiteke, egoerak iraun ez gero giza osasunerako eta ingurugirorako berehalako arriskua baldin badago.

3.- Ordezko burutzapena erantzukizuna dutenen kontura egingo da, egon daitezkeen diru-zigor eta gainerako kalte-ordainen kalterik gabe.

105. atala.- Ezohiko kasuetan kautelazko neurriak hartzea.

Salbuespenez, eta zigor-espeditentea irekitzeari hasiera eman aurretik, administrazio publikoek zigorizaerarik ez duten ondoko kautelazko neurriak hartu ahal izango dituzte edo lege honetan arau-hauste gisa tipifikatutako edozein ekintzaren ustezko ardura-dunari neurri horiek harrarazi ahal izango dizkiote:

- a) lanak edo jarduerak bertan behera uztea.
- b) aparatuak, ekipoak edo ibilgailuak prezintatzea.
- c) ingurugiroko kaltea zabal ez dadin zuzentze, segurtasun edo kontrolerako beste edozein neurri.

figando un plazo cuya duración será determinada atendidas las circunstancias y que será suficiente para efectuar dicho cumplimiento voluntario.

4.- Las multas coercitivas serán independientes y compatibles con las multas que se hubieran impuesto o puedan imponerse como sanción por la infracción cometida.

5.- Cuando la reparación del daño no pudiera realizarse sobre el mismo elemento o en el mismo punto geográfico, el órgano competente podrá ordenar la reparación por su equivalente.

6.- Los fondos económicos obtenidos por las sanciones que imponga la Administración deberán destinarse íntegramente a medidas dirigidas a la mejora del medio ambiente.

Artículo 103.- Vía de apremio.

Podrá ser exigido por la vía de apremio el importe de las sanciones pecuniarias impuestas, el de las multas coercitivas y el de los gastos ocasionados por la ejecución subsidiaria de las actividades de restauración de los bienes dañados como consecuencia de las infracciones reguladas en la presente ley.

Artículo 104.- Ejecución subsidiaria.

1.- Si el infractor o infractora no cumpliera sus obligaciones de restauración del medio ambiente habiendo sido requerido a tal fin por el órgano sancionador, éste ordenará la ejecución subsidiaria.

2.- No será necesario requerimiento previo, pudiendo procederse de modo inmediato a la ejecución, cuando de la persistencia de la situación pudiera derivarse un peligro inminente para la salud humana o el medio ambiente.

3.- La ejecución subsidiaria se hará por cuenta de los responsables, sin perjuicio de las sanciones pecuniarias y demás indemnizaciones a que hubiere lugar.

Artículo 105.- Adopción excepcional de medidas cautelares.

Excepcionalmente, y con carácter previo a la incoación de expediente sancionador, las Administraciones públicas podrán adoptar o imponer al presunto responsable de cualquiera de los hechos tipificados como infracciones en la presente ley la adopción de las siguientes medidas cautelares que no tendrán carácter sancionador.

- a) suspensión de obras o actividades.
- b) precintado de aparatos, equipos o vehículos.
- c) cualquier otra medida de corrección, seguridad o control que impida la extensión del daño ambiental.

II. ATALBURUA
IKUSKAPENA ETA KONTROLA

106. atala.– Ikuskapena eta kontrola.

1.– Beren eskumenen esparruan administrazio publikoei dagozkie zaintzeko, ikuskatzeko eta kontrolatzeko ahalmenak Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan gauzatutako jardueren arloan.

2.– Ikuskapena egiten dutenak beren lanean ari direnean agintaritzaren agente izango dira, eta ahalmena dute, identifikatu ondoren, eta dagokionean, aurrez abisatu gabe, lege honetako gai diren jarduerak egiten diren instalazioetara sartzeko.

3.– Administrazio publikoek, zaintza eta kontrolerako, behar bezala kreditaturiko erakunde publiko edo pribatuei ahalmen jakin batzuk eman ahal izango dizkiete. Araudian ezarriko dira burutu beharreko eginkizunak eta horretarako bete beharreko baldintzak.

107. atala.– Ikuskapen-akta.

Ikuskapen-bisita bakoitzean irregulartasuna izan dezaketen gertaeren deskribapen-akta jasoko da. Bertan gertaeren arduradunak egindako alegazioak azalduko dira. Akta horiek ziurtasun-presuntzioa eta frogabalioa izango dute, administratuek beren interes defentsan ekar ditzaketen gainerako frogen kalterik gabe.

III. ATALBURUA
ARAU HAUSTEAK

108. atala.– Arau-haustek.

Lege honen arabera arau-haustek hurrengo atalean aurreikusitakoak izango dira, eta oso larri, larri eta arin gisa sailkatuko dira.

109. atala.– Oso arau-hauste larriak.

Ondoko ekintzak arau-hauste oso larriak dira, pertsonen, beren ondasunen edo ingurugiroari arrisku edo kalte handiak sortzen dizkietenean eta ordenamendu juridikoaren kontra burutzen direnean:

a) Lizentziarik gabe, ingurugiroaren gaineko eraginaren baimen edo ebaluaziorik gabe edo ingurugiro-baimen edo -lizentzietan edo ingurugiroaren gaineko eragineko deklarazioetan ezarritako baldintzak bete gabe obrak, proiektuak eta jarduerak hasi edo burutzea.

b) Ingurugirora (uretara, atmosferara edo lurrera), ingurugiro-egoera kaltetu edo oro har oreka ekologikoari eragiten dioten produktu edo substantziak (sólido, likido edo gasak edo energi formak, soinu-energia barne) botatzea.

CAPÍTULO II
INSPECCIÓN Y CONTROL

Artículo 106.– Inspección y control.

1.– Corresponderán a las Administraciones públicas, en sus respectivos ámbitos de competencias, las facultades de vigilancia, inspección y control en relación con las actividades radicadas en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– El personal que realice la inspección dispondrá en el ejercicio de esta función de la consideración de agentes de la autoridad, hallándose facultados para acceder, en su caso sin previo aviso, tras su identificación, a las instalaciones en las que se desarrollen actividades objeto de esta ley.

3.– Las Administraciones públicas podrán otorgar determinadas facultades de vigilancia y control a entidades públicas o privadas debidamente acreditadas, estableciéndose reglamentariamente las funciones a desarrollar y los requisitos para su ejercicio.

Artículo 107.– Acta de inspección.

De toda visita de inspección se levantará un acta descriptiva de los hechos que puedan ser motivo de irregularidad, acta en la que se harán constar las alegaciones que formule el responsable de aquéllos. Estas actas gozarán de la presunción de certeza y valor probatorio, sin perjuicio de las demás pruebas que, en defensa de los respectivos intereses, puedan aportar los administrados.

CAPÍTULO III.
INFRACCIONES

Artículo 108.– Infracciones.

Se considerarán infracciones, conforme a la presente ley, las previstas en los artículos siguientes, las cuales se clasificarán en muy graves, graves y leves.

Artículo 109.– Infracciones muy graves.

Son infracciones muy graves los siguientes hechos, cuando generen riesgos o daños de este carácter a las personas, sus bienes o al medio ambiente y se realicen contraviniendo el ordenamiento jurídico:

a) La iniciación o ejecución de obras, proyectos y actuaciones sin licencia, autorización o evaluación de impacto ambiental o sin ajustarse a las condiciones impuestas en las autorizaciones y licencias ambientales o en las declaraciones de impacto ambiental.

b) La descarga en el medio ambiente, bien sea en las aguas, la atmósfera o el suelo, de productos o sustancias, en estado sólido, líquido o gaseoso, o de formas de energía, incluso sonora, que suponga un deterioro de las condiciones ambientales o afecte al equilibrio ecológico en general.

c) Ingurugiro-eragina ebaluatzeko edo era guztietako ingurugiro-baimen eta -lizentziak emateko behar diren datuak ezkutatu edo faltsutzea.

d) Gelditzeko edo ixteko aginduak ez betetzea edo neurri zuzentzaileak behin eta berriz ez betetzea.

e) Ingurugiroa zaintzeko programak ez betetzea.

f) Ingurugiro-kontrolerako lanak erakunde laguntzailearen bidez araudian aurreikusitakoaren aurka egitea.

g) Aldatutako ingurugiroa berritzeko eta berreskuratzeko agindu administratiboak ez betetzea.

h) Eskumena duen organoak hartutako kautelazko neurriak ez betetzea.

i) Hondakinak aire zabalean erretzea.

j) Poluitutako lurzoruei buruzko xedapenen kontra obrak egitea, erabiltzea eta jarduerak burutzea.

k) Poluitutako lurzoruei buruzkoan, berreskuratzeko, aurre hartzeko edo aldezteko neurririk ez hartzea.

110. atala.– Arau-hauste larriak.

1.– Arau-hauste larriak dira aurreko atalean aipatutakoak, pertsonen, beren ondasunen edo ingurugiroari arrisku edo kalte larriak sortzen dizkietenean eta ordenamendu juridikoaren kontra burutzen direnean.

2.– Halaber, arau-hauste larritzat hartuko dira:

a) Jardueren titularrei eskatutako datuak ezkutatzea eta emateari uko egitea eta Administrazioaren ikuskapen-lanari aktiboki zein pasiboki eragozpenak jartzea.

b) Lege honetan aseguru eta fidantzei buruz adierazitako betebeharrak ez betetzea.

111. atala.– Arau-hauste arinak.

Arau-hauste arinak izango dira aurreko ataletan oso larri edo larritzat hartu eta pertsonengan, horien ondasunetan edo ingurugiroan eragin txikia dutelako maila horietan sailkatzekoak ez direnean.

112. atala.– Preskripzioa.

Lege honek aipatzen dituen arau-hausteei preskribitu egingo dute honako epe hauetan (arau-haustea egin zen egunetik edo, kaltea berehalakoa izan ez bada, ingurugiro-kaltea detektatu zenetik kontatzen hasita):

a) Urtebetera, arau-hauste arinak direnean.

b) Hiru urtera, arau-hausteei larriak direnean.

c) Bost urtera, arau-hausteei oso larriak direnean.

c) La ocultación o falseamiento de los datos necesarios para la evaluación de impacto ambiental o para la emisión de autorizaciones y licencias ambientales de todo tipo.

d) El incumplimiento de las órdenes de suspensión o clausura, o el incumplimiento reiterado de medidas correctoras.

e) El incumplimiento de los programas de vigilancia ambiental.

f) La realización de tareas de control ambiental por entidad colaboradora de forma contraria a las previsiones reglamentarias.

g) El incumplimiento de las órdenes administrativas de restauración y recuperación del medio ambiente alterado.

h) El incumplimiento de las medidas cautelares adoptadas por el órgano competente.

i) La incineración de residuos a cielo abierto.

j) La realización de obras, usos y actividades en contra de las disposiciones relativas a suelos contaminados.

k) La no adopción de medidas de recuperación, prevención o defensa en relación con suelos contaminados.

Artículo 110.– Infracciones graves.

1.– Son infracciones graves las contempladas en el artículo anterior cuando generen riesgos o daños de carácter grave a las personas, sus bienes o el medio ambiente y se realicen contraviniendo el ordenamiento jurídico.

2.– Se considerarán asimismo infracciones graves:

a) La omisión de datos y la negativa a facilitar los que sean requeridos a titulares de actividades y la obstrucción, activa o pasiva, a la labor inspectora de la Administración.

b) El incumplimiento de las obligaciones sobre seguros y fianzas previstas en la presente ley.

Artículo 111.– Infracciones leves.

Se considerarán infracciones leves las señaladas en los artículos anteriores como muy graves o graves, cuando por su escasa incidencia sobre las personas, sus bienes o el medio ambiente no se den los supuestos para dicha calificación.

Artículo 112.– Prescripción.

Las infracciones a que se refiere la presente ley prescribirán en los siguientes plazos a contar desde la comisión del hecho o desde la detección del daño ambiental, si éste no fuese inmediato:

a) Un año en caso de infracciones leves.

b) Tres años en caso de infracciones graves.

c) Cinco años en caso de infracciones muy graves.

IV. ATALBURUA
ZIGORRAK**113. atala.**– Mailakatzea.

1.– Lege honetan aipatutako arau-hausteengatik zigorrak eragin den arriskua edo kaltea, lortutako etekina, izandako asmoa eta inguruabar aringarriak edo astungarriak kontuan edukita mailakatuko dira.

2.– Zigor-prozeduran inguruabar astungarritzat hartuko dira indarrean dagoen Kode Penaleko 326. atalean adierazitakoak.

3.– Halaber, inguruabar astungarri izango da arau-haustetzat hartzen diren ekintzak zona sentikoretan burutzea.

4.– Erantzukizun administratiboko inguruabar aringarritzat hartuko da zigor-espedituari hasiera eman baino lehen jarduera jakin batetik ingurugiroan sortzen diren eragin kaltegarriak minimizatu edo deuseztatzeko neurri zuzentzaileak hartzea.

114. atala.– Zigorrak.

1.– Legean aurreikusitako arau-hauste administratiboak egiteagatik ondoko zigorrak ezarri ahal izango dira:

- a) Arau-hauste arinengatik:
- 50.000 pezetatik 4.000.000 pezetarainoko isuna.
 - Instalazioen zati bat denboraldi baterako, gehienez urtebeterako, ixtea.
 - Jarduerak gehienez urtebeterako geraraztea.
 - Ohartarazpena.
 - Erakunde laguntzaile izatea gehienez hiru urterako galtzea.
- b) Arau-hauste larriengatik:
- 4.000.001 pezetatik 40.000.000 pezetarainoko isuna.
 - Instalazio osoa edo instalazioen zati bat gehienez hiru urterako ixtea.
 - Jarduerak gehienez hiru urterako geraraztea.
 - Erakunde laguntzaile izatea hiru urtetik gorako eta gehienez 10 urteko eperako galtzea.
- c) Arau-hauste oso larriengatik:
- 40.000.001 pezetatik 200.000.000 pezetarainoko isuna.
 - Instalazio osoa edo instalazioen zati bat behin betiko ixtea.
 - Behin betiko geraraztea.
 - Gehienez sei urterako geraraztea.
 - Jarduerak gehienez sei urterako ixtea.

CAPÍTULO IV
SANCIONES**Artículo 113.**– Graduación.

